

# BAYONETA

Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,  
Eusco Icascuntzaren pribilegioatequin,  
Zehazten mercatalecheac, Artem moldizteguian.



Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,  
con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,  
por la casa de comercio de Zehazten, en la imprenta de Artem.

## Tolosan, 1810co lorailaren 11 can. Londresco Estafeta, Donostiatic iritsia.

Tolosarrac, Basatiaren chaperoc oraindic guiltzapetu ecin izan duten eta guiltzapetuco ez-tuten Baioneta onec eztizute inoiz guezurric esan nai izan. Orregatic garbi diozuet Europa osoa izuac artua duela. Egun, 1810co lorailaren 11 onetan, ezta erregue edo equersituric Tiranoari eutsico dionic. Prusia, ixil-ixilic dago, baita Errusiaco despota ere. Aguien mauca obearen zain dago. Aguien, cosacoen erara, bere burua defendatzeco gauza ezteanean Bonaparte zampatzeco zain egongo da.

Gure errian bertan Basatiaren morrontzan dauden gure aguintaric urte char ontaco jorraillaren 22an, musica ta janari ta guzti ospatu dute Napoleon Buonaparte edo Bonaparte dela-coaren eta Austriaco emperadorearen alaba Maria Luisaren arteco ezcontza.

Europaco erregue guciac ixilaraci ta lotu dituen Wagramco porrotaren ondoren jaquina cen, Frantziaren asieran izandaco onen antzeco cerbait guertatuco cela. Onela, inorc ecin izan du ecer eguin Basatia tiro bat bera ere bota gabe Erromaco Aita Santuaren estatuez jabetu denean.

Au idazten ari naicela erregueren equersitu bacandu batzuec ta Ingalaterra naiz Portugalcoec bacarric eguiten diote aurre oraindic Tiranoaren guizonci. Badaquizute quementsu auec Tiranoaren cenbait erregimentu osoro suntsitu dituztela aste guchiren buruan, Alemaniatic ecarritaco Zalduneria Arinarequin eguin zuten leguez. Baña ceuec ere icusi dituzte gure caleetan barrera Frantziara daramazquitzen presoac ta Basatia oraindic gai da bandaloz osatutaco bere equersitu orrec dituen guiza galera guztiac betetzeco. Eguia esateco, auxe da egun gure icharopenecec duten egoera caxcarra.

## Tolosaco berriac. Bertan icusiac.

Gurean guertatzen ari diranac Europa osoan izandacoen berdinac dira.

Errian bertan ditugun arma guizonac, aliatuen equersituco icurren atzean biltzeco betebearra albora utzi dutenac beintzat, ixildu ta obeditu besteric ez-tute eguiten, ta ez da batere gloriotsua Basatiaren aurca eguiten duten borroca pixarra.

Orra Umendia brigadier jeneral jauna. Dirudienec gure auzoco ilustre onec 1810co ilbeltzaren 11n Buonaparteren aurca zuen quexu bacarra auxe cen: etzezatela bere eche ondratuan capitain edo alfercz bezain gradu guchico oficialic ostaruan artzera beartu, bera brigadierra denez malla andiagoco ostarutarrac merceci omen ditu ta.

Contu eguin tolosarrac, Umendia brigadier jaunaren arroqueriequin ta bacarric jeneral baino goragocoac diren Basatiaren morroientzat egoquia den bere ostaru apainarequin nolaco comeriac, nolaco saineteac idatzi ditzazquen Leandro Fernandez de Moratin idazle zorrotz ta andiac.

Ciur egon Bayoneta au itacurri edo bere berri izaten dueneraco idazle aundi onec, gure garaico Homero onec, bereala idatzico duela lan berriren bat, ondoren macur-macur eguinda cerbitzatzen duen Tiranoaren anaiari esqueñico diona. Idatzitaco guztia berac asmatua dela ciurtatuco dio gañera.

Bitartean on Francisco Bruno de Ayaldeburu eta gure contzejutarrac ditela dioten gañontzeco chochonguilloac, Thouvenot general jaunac, Basatiaren aguindutara gure probintzietan dagoen erregueorde alguztidunac, aguindutaco mandatuac bete besteric ez dute eguiten.

Izan ere aguindu auetaco cembait benetan barregarriac dira, aurtengo epaillaren 15coea lecuco, gure aguintariac erabat nastu cituena. Artan, beren Thouvenot general maiteac, besteac beste, errico escale eta alper danen cerrenda escatu cien. Gure udalchean ainbeste zalaparta sortu bear etzuen lan erreza cen, izan ere gure udalerritic igaro ta bertaco lur ta jabetzac xautzen dituzten Basatiaren soldaduac cembatzea besteric etzuten, on Francisco Bruno ta bere udal-morroiecc ederqui frotatu al izan zutenec.

Nic neuc, guiltzapetu gabe dagoen eta inoiz guiltzapetuco ez duten Bayoneta onen jabeac, buruauste aundiric gabe eguingo nuque. Ta ez nituzque aztuco Tiranoac Tolosan ostaruan artzera beartu gaitun berreun chandarmeac. Basatiac beraganaco leialtasunagatic ematen duen ordaina, zacurrentzaco ere egoquia ez dena, cein den aztu eztezetan, uniformez jantzitaco basapizti oriecc ecarric dituzte gurera, Ostaru Berrico cuarteleco oetaraco brabante ta arizco maindireac baño guchiagorequin conformatzen ez diranac. Eguinbear au ere gure contura ordaindu da, gure erlurten lepota, daquizuten bezala orda auec mantentzeco bein ta berriz baitu dituztenac.

Obe luque Umendia jeneral brigadier-ostalari orrec Tiranoaren morroiecc echera ostaru artzera bidaltzen dizquioren lacaioren graduacioez baño aipatutaco arazoez arduratzea.

Naico berri dira gaurco, ciur bainago ausnartzeco naico gaia izango dezutela urrena bisitan natorquizedan arte. Ez aztu bitartean guero ta preso gueiagoc ecartzen dituzten bide orren egoaldean cer guertatzen ari den, edo guizon oriecc egoera negargarri orretan bucatzera cerc bultzatu dituen, cenbait brigadaco jeneral ez bezala, ez dira beintzat barregarri guertatu.

## En Tolosa, a 11 de mayo de 1810. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.

Tolosarras, jamás ha tenido intención de mentiros esta Bayoneta que los lacayos del Ogro no han encerrado ni encerrarán jamás en cuarto alguno bajo llave. Por eso debo decir que el Miedo más gélido impera sobre toda la Europa. No hay, a fecha de hoy, 11 de mayo de 1810, ejército o potencia alguna que resista al Tirano. La Prusia calla y otorga, el Déspota ruso hace otro tanto. Acaso esperando un bocado más grande del botín. Tal vez aguardando la ocasión de aplastar a Bonaparte al estilo cosaco, cuando no pueda defenderse.

En nuestra misma villa vimos el 22 de abril de este año aciago cómo los sirvientes del Ogro que nos regentan celebraban, con música y refrescos, los esponsales del llamado Napoleón Buonaparte o Bonaparte con la princesa María Luisa, hija del emperador austriaco.

Ese hecho, que tuvo lugar en la Francia a principios de ese mes y ya se adivinaba como inevitable tras la derrota de Wagram, ha sellado los labios y atado las manos de todos los reyes de la Europa. Ninguno ha impedido que los Estados del Papa sean anexionados a la corona del Ogro, que los ha conseguido sin tener que disparar un sólo tiro.

Cuando escribo estas líneas sólo los ejércitos dispersos del rey y los de la Gran Bretaña, junto a los de Portugal, hacen todavía cara a los hombres del Tirano. Algunos ya sabréis que regimientos enteros del Ogro, como el de Caballería Ligera traído de la Alemania a principios de este año, han sido diezmados en cuestión de semanas por esos valientes. Pero vosotros mismos también habéis visto las columnas de prisioneros de esos ejércitos que pasan por nuestras calles camino de

la Francia y que, por el momento, el Tirano es capaz de cubrir todas y cada una de las bajas que sufren sus ejércitos de vándalos. Ese, sin mentir, es el estado de nuestras esperanzas a día de hoy.

## Noticias de Tolosa. Observadas del natural.

Nuestros asuntos domésticos son, como era de esperar, un reflejo exacto de lo que ocurre en el resto de la Europa.

Los hombres de armas de nuestra villa, al menos todos aquellos que no tienen la decencia de agruparse, como es su deber, bajo las banderas del ejército aliado, callan y obedecen y si alguna guerra se plantean contra el Ogro y sus secuaces no es precisamente gloriosa.

Considerad el caso del señor general brigadier Umendia. Este notorio vecino nuestro parece que, de momento, sólo tenía, a fecha de 11 de enero de este año 1810, una objeción que hacer al Tirano de la Europa: que no permita alojar en su augusta mansión militares de poca monta, como alféreces y capitanes, que él, como brigadier, dice merecerse huéspedes forzosos de más calidad.

Considerad, Tolosarras, qué sainete, qué comedia nueva, podría inspirar este suceso del señor brigadier Umendia y su flamante posada sólo para secuaces del Ogro con grado de general para arriba, a don Leandro Fernández de Moratín, el eximio vate, al gran escritor.

Es seguro que en cuanto tenga noticia de él leyendo esta Bayoneta, o algún resumen de ella que alguien le haga, no dudará el genial dramaturgo, este Homero de nuestros tiempos, en componer una nueva obra que pondrá, como tiene por costumbre, a los pies del hermano del Tirano al que con tanta unción sirve. Asegurándole, además, ser toda ella idea suya y enteramente original.

Mientras tanto don Francisco Bruno de Ayaldeburu y los otros muñecos que dicen ser concejales nuestros, se limitan a obedecer todas y cada una de las órdenes que les envía el señor general Thouvenot, supremo virrey de nuestras provincias en nombre del Ogro.

Algunas son verdaderamente ocurientes y graciosas, como la que hizo devanarse los sesos a nuestros gobernantes allá por el 15 de marzo de este año. Cuando su idolatrado general Thouvenot les pidió que elaborasen, entre otras, una lista completa de los mendigos y vagos que viven en esta jurisdicción. Sencilla tarea que no merecía tanto cacareo de gallina mojada en nuestro Ayuntamiento, pues para hacerla les hubiera bastado con contar todos los soldados del Ogro que pasan por nuestra villa y la devoran con todas sus tierras y pertenencias. Como incluso reconocieron por esas mismas fechas don Francisco Bruno y sus secuaces municipales.

Yo mismo, el dueño de esta Bayoneta que no han encerrado ni encerrarán jamás, se la hubiera hecho sin mucho esfuerzo. Sin olvidarme de incluir en ella a los doscientos gendarmes que el Tirano ha mandado alojar en Tolosa. Para que no olviden el buen pago que recibe su lealtad al Ogro, digna de perros, con esas fieras de uniforme, que, además de robar tanto como los demás bárbaros, no se conforman con menos que sábanas de lienzo y Brabante para las camas de su cuartel de la Posada Nueva. Esfuerzo éste como siempre pagado a nuestra costa, con las tierras de nuestros comunales, que, como ya sabréis, están siendo embargadas una tras otra para mantener a estas hordas.

Mejor haría el señor general brigadier-posadero Umendia cuidándose de ese problema y no de qué graduación son los esbirros que los secuaces del Tirano le mandan alojar en su casa.

Por hoy no os contaré más noticias, pues estoy seguro de que con éstas tendréis bastante materia sobre la que reflexionar hasta que vuelva a visitaros. No olvidéis entre tanto lo que ocurre al Sur del camino por el que cada día llegan más y más prisioneros, ni las justas razones que han empujado a estos hombres a ese estado penoso pero no tanto como el ridículo papel que hacen algunos generales de Brigada.



Alperren cerrenda eguiten - Haciendo la lista de vagos